

GIL 59 Haitz Zurietako orratz erako karsta



Haitz Zurietako lapiazaren (*Spitzkarren*) garapena. Arrakala handi eta zorrotzak sortzen dira kareharrian.

Kokapena

- **Koordenatu geografikoak:**

Lat.: 43° 15' 04,87"

Long.: 3° 01' 2,50"

- **UTM koordenatuak:**

X: 498.590,73 m

Y: 4.788.727,93 m



Nola iritsi

Barakaldoko Gurutzeta auzotik edo Alonsotegiko udalerritik, hartu Santa Ageda ermita-ranzko bidea; Haitz Zurietara igotzeko bidea ermitaren eskuinaldean dago.



Rillenkarren garapena dolina baten "hormetan".

Deskribapena

Haitz Zuriaren gailurra, 462 metroko garaieran (1. irudia), Barakaldoko udal-barrutian dago, Alonsotegi eta Galdamesekiko mugan, Sasiburu mendilerroan. Kretazeoko (Aptiar-Albiarreko) kareharri urgondarrez eratua dago; kareharri horiek sakonera txikiko arrezife-plataforma batean metatu ziren, eta fosil asko daude han, batik bat errudistak (molusku bibalbioak) eta koralak.


Igurunearen modelaketa exokarstikoak lapiaz-motako eremu bat utzi du (*Spitzkarren*), ongi garatua. Burdin mineralizazioari (burdin karbonatoak eta oxidoak) lotutako zonetan, 1-4 metro garaiko orratz koniko oso markatuak dituen morfologia bat nabarmentzen da (1. irudia). Burdin ustiaketak, Bizkaiko meatzaritzaren garaian, XX. mendearen hasieran, agerian utzi zituen pinakulu karbonatatu horiek. Meatzaritza-iragan hori nabarmena da inguruan dauden meatze-aho ugarietan, hondakindegietan eta zenbait karobitan. Zenbait barrunbe ere aurkitu izan dira, hala nola Haitz Zurietakoa.

Erlazionatutako GILak


- **Geografikoki:** GIL 140, GIL 141, GIL 149.
- **Gaiari dagokionez:** GIL 56, GIL 61, GIL 63, GIL 141, GIL 149.



Karstaren orratz gisako garapena.



A: Haitz Zuriaren egungo geomorfologiaren formazio-eskema; burdin mineralaren ustiaketak eragin du morfologia hori (Bizkaiko Foru Aldundia). B: Haitz Zuriaren ikuspegi orokorra, Barakaldo atzean dela. C: Pinakuluen xehetasuna (Bizkaiko Foru Aldundia). D: Haitz Zurietako gurutzea.



Kareharri fosildunaren itxura; koral adartsuen sekzio ugari ageri dira.

GIL-aren balorazioa

Balorazioa		Baxua	Ertaina	Altua	Oso altua
Interes zientifikoa	Geomorfologikoa			●	
	Hidrogeologikoa				
	Tektoniko/Estrukturala				
	Estratigrafikoa		●		
	Paleontologikoa		●		
	Petrologikoa				
	Mineral-hobiak				
	Beste batzuk				
Interes ekonomikoa (erauzketa)			Iraganean ●	Potentziala	Martxan
Interes kulturala:					
Oharrak:	Karsteko zuloetako burdin mineralizaziozko betegarriak ustiatu egin izan dira, eta ageriago jarri du horrek karst-modelaketa.				

Bibliografia espezifikoa

- <http://www.eve.es/publicaciones/cartografia/Mapas/61-II.pdf>
- Gutierrez Elorza, M. (2008): *Geomorfología*. Arg.: Miguel Martín Romo. 898 or.
- Bizkaiko Foru Aldundia (1990): *Bizkaiko interes geologikoko guneak*. Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Saila. 270 or.